

# Mungia eta



Derio

Mungia

Gatika

Urduliz

Plentzia

# Plentzia 06



# 06

## **Mungia eta Plentzia**

BI-631, 634 eta 2704 errepedeetatik doa. Begoñako santutegitik irtetea gomentatzen dugu, Agirleta eta Artebakarra mendateetatik Butroe ibaiaren arrora iristeko, eta geroago helmugara, Plentziako hiribildura, alegia.



#### *Aurreko orrialdean:*

*Plentziako Itsasadarra. Butroa ibaiak nabigagarria eta kresal usainekoa du bere azken tartea, Plentziaren sorlekua izan zena.*

#### *66. orrialdea:*

*Derioko hilerria. Erdi Aroko kutsua duen galeria bat, handitasunaren erakusgarria hilerria baino-ago hil-hiria den honetan.*

#### *Orrialde honetan, behean:*

*Derioko hilerria. «Isil jendearen» lorategiko kaleak, zumardiez apainduak, eta zuhaitzen gerizpean luxuzko panteoiak.*



#### **Begoñako basilika**

Oinean Bilbo hiriaren ikuspegia duen santutegi batean gurtzen da Bizkaiko zaindaria. Hain zuzen ere, bisita asko hartzen zituelako eta Begoñako elizateko parrokia zelako eraiki zen molde monumentalean.

Sei tarteko hiru habearte mailakatutan antolatu zen; erdikoa hiru hormaataleko burualde alakatuan amaitzen da. Guneak zehazteko, fuste txikien multzoak dituzten pilareak baliatzen dira. Gangako nerbioen marrazketa uniforme ez bada ere, bere konplexutasunak aditzera ematen du planteamendu gotiko orokorra baino geroagokoa dela. Argiztapen urria ere ez dator bat gotikoaren izaera argitsuarekin; leiho txikiak dira horren arrazoia, altuera gutxiko hormaataletan irekirik baitaude. Leiho batzuen azpian eta kapitelen azpian, zizelkaturiko merkatarik markak ageri dira, obraren herri sustapena gogora ekartzen dutenak.

Portale nagusia oinaldean dago, egungo dorreari eusten dioen arku-hobi handi baten azpian. Sarrera garaitza-arku baten tankerakoa da, zutabe klasikoaren parean artean egina; atikoa du gainean, Andra Mariaren erliebe batez hornitua.

Portalea Errenazimentuko moldeen araberakoa da, tenpluaren gorputza ez bezala, XVI. mendearen hasierako gotiko inertziazkoan egirik baitago, Martín Sánchez de Aregok 1511 inguruan marrazturik. Gangak XVII. mendeakoa dira, eta dorrea Jose Maria Basterrak marraztu zuen, 1901ean.

Hormetan oihal zahar batzuk daude zintzilikaturik; haietariko batzuk Murilloren margolanen kopiak dira, ustez Domingo Martínez sevillarrak egindakoak, 1730 inguruan, eta beste batzuk modernoagoak: koleraren 1855eko epidemiagatik **Andra Mariak Bilbora eginiko prozesioa**, Ramon Elorriagarena; eta **Begoñako Andra Mariaren Koroatzea**, Jose Etxenagusiak 1902an amaitua. Eta Nabarniztik ekarritako harrizko sagrario eder bat ere badago, gotiko berantiarrekoa.

**Begoñako Amaren tailla** ere gotikoa da, XIV. mendearen amaierako Andra Maria tipikoa, estilo isabeldarreko agertoki arkitektoniko urreztatu handi baten erdian gurtua (Modesto Etxaniz, 1869).

#### **Derio**

Bide gurutze batean kokaturik, aspaldi hasi zen baserri izaera galtzen, lo herri eta zerbitzu herri bilakatzeko. Bere erdigune historikoa, Done Kristobal elizaren ingurukoa, leku urrun eta ia ahaztua da egun.

#### **Vistalegre hilerria**

Bilboko lurrak dira, Derio udalerririk inguraturik egon arren. Nekropoli bikaina da: zuhaitzez hornituriko etorbidetan antolatzen da, alboetan hilobiak lerrokatzen direla. Hiru harlauzaz itxitako lurperatze hobi lauen jatorrizko formularen gainean, kapera aberatsak eta panteoi zizelkatu pribatiboak egin zituzten partikular askok, hilerri monumentala osatzeraino.

Hainbat estilo sartzen dira eskalan eta analogiaz eginiko hiri honetan, familia askok XX. mendearen hasieran industrian, meataritzan edo finantza-jardueretan lorturiko dirutza handien ondorioz, hain zuzen. Nabarmentzekoak dira, gainera, nekropoliaren gune komunitarioak: galeriak, kapera, bulegoak, joera neoerdiarrotarrekoak guztiak. Edesio Garamendi eta Enrique Epaltza (1902) izan ziren multzo garrantzitsu honen arduradunak.

Horrez gain, kapera eta panteoietan, XX. mendearen hasierako bizkaitar arkitektura eta eskulturaren gaina eta bikaina dago ordezkaturik: José M<sup>a</sup> Basterra edo Mario Camiña arkitektoak, Nemesio Mogrobojo, Higinio Basterra edo Quintín Torre eskultoreak eta abar.

Luzeegi joko luke kalitate aparta duten elementuen zerrenda egiteak. Bizkaiko artearen historiaren atalik onenetakoa da hiletarekin loturikoa.

#### **Mungia**

Hiribildu historikoa da (1376ko hiri

gutuna), ibar batean kokatu eta zenbait elizatetan antolaturiko landa-lurralde baten erdigunea, eta gaur egun bizilagun ugariko bizitegi gunea.

Ez da ezer gelditzen Erdi Aroko hirigintza-moldetik; eta gutxi **Done Petri elizatik** (1940an berreraiki zen): hormen beheko partea eta bi portale, interesgarriena oinaldekoa delarik, 1520 inguruko formula hispaniar-flandestarra, bere estiloan ederki marraztua.

### Urgoiti jauregia

Mungia heldu baino lehen eta aireportutik hiru edo lau minutura, Laukarizera bidean kilometro bat edo gutxiago eginik, Artebakarragaren gaineko muino batean, jauregi barroko garrantzitsu bat egokitzen ari da, hotel bilakatzeko; 1716an obretan zegoen, seguru asko Martin Zalduak marrazturik. Ondarearekiko sentiberatasunaren adibidetzat jo daiteke, zeren, 1973an Urgoiti inguruan (Galdakao) desmuntatu ondoren, berriz ere erakusten baitu orain bere harrien nobletasuna.

### Billelako gotor-dorrea

Estilo historizistan eraldatu zen 1852an, eta berregindako dorre almenadun baten inguruko jauregi neogotikotzat har daiteke gaur egun. Dataren arabera, litekeena da hau izatea estilo historizistaren Bizkaiko lehen lekukoa.

### Landetxo Goikoa baserria

Gatikarako irteeran, etxebizitza-auzune bat zeharkatu ondoren aurkituko dugu, ezkerretara. Bizkaiko baserri gotikoaren tipologiaren ordezkari onena da. Fatxada hiru ardatzetan antolaturik dago: alboetakoak harrizkoak dira, eta arku zorrotzeko leiho geminatuak dituzte; erdikoak egurrezko egitura dauka, oholak mihiztaturik eta pieza nagusiak taillaturik daudela. Atari dinteldua da Landetxo Goikoaren ekarpenik handiena. Landa-leinu batek sustatua, 1520 ingurukoa bide da, eta errestauratu ondoren erabilera kulturala emango zaio.

### Orrialde honetan, goian:

*Monumentuen aldagarritasunaren adibide, Mungia Urgoiti Jauregia, harriz harri tokiz aldatua eta orain hotel bilakaturia.*

### Orrialde honetan, behean:

*Mungia. San Pedro eliza. Ugari dira apaingarri gotikoak, XVI. mendearen hasierakoak.*

### 69. orrialdea, goian:

*Mungia. Landetxo Goikoa.*

*Gotiko berantiarreko euskal baserrian egurrezko itxidura soilak erabiltzen ziren.*

### 69. orrialdea, behean:

*Plentzia. Elizako dorrea, gotikoa eta portadaduna. Kanpandorra ez ezik portu eta kaiaren gaineko talaia ere bazen.*



**Gatika**

Mungiatik hurbil, baserri izaera gordetzen du oraindik. Berreraikiriko parrokia-elizak zehazten du erdigune historikoa, bizilagun gutxikoa.

**Butroeko gaztelua**

Lau kilometrora, Urdulizko errepedeak ermita moderno bat ixten du eskuine-tara; haren azpian, Butroe ibaiaren bihurtune oihantsu batean, maitagarrien ipuinetakoa dirudien gaztelu erromantiko bat dago: Butroekoa. Berria eta aldi berean zaharra da; izan ere, Torrecillako markesak 1879an Butroetarren oinetxe zaharra berreraikitzea pentsatu zuenean, Cubas markesaren proiektuak dorretxe zahar-raren zati batzuk errespetatu zituen –izkinetan dorre zilindrikoak zituen–. Segoviako gotorlekuan inspiraturik, dorretxoez, adarbeez, kaperaz eta gainera-koez horniturik dago jaurespenaren dorre garaia, molde erromantiko fineko eta estilo neogotikoko gaztelua osatu arte. Aldi berean, landare espezie exotikoez hornituriko parke bat landatu zen, ibaiaren korrontea geldotu, eta zubitxo berregin zen. Xehetasun horiek guztiek erromantizismoa eta fantasia indartzen dute, pentsamolde saxoiaren arabera. Arestian berriro ere errestauratu da maila handiko monumentu hau.

**Urduliz**

Trenbidearen bitartezko komunikazioen laguntza baliaturik, landa-elizate honek neurri bateko garapena izan du, gune industrial modura aurrenik, eta bizitegi gune modura orain. Bi gune nagusitan banatzen da; zaharrenaren buru, eliza barroko neurritsua dugu.

**Plentzia**

Jatorria Erdi Aroan izan arren, giro hiritarra du itsas hiribildu honek; duela ehun bat urtetik hona bigarren bizilekua izateko gutuziatua, erakargarri turistiko ugari ditu. Arrantzari dagokionez, egun jolas arrantza besterik ez dago ia.

**Zubia**

1983ko uholdeek Plentziako sarrerako zubia hondatu zuten; haren ordeztan Javier Manterola ingeniariaren oraingo pasabidea jarri zen, tiranteen sistema baliaturik: bi arku handitatik, taula metaliko eta hormigoizko ia lauari eusten diote burdinari galbanizatuek.


**Hirigintza**

Butroe ibaiaren estuarioaren azken bihurtunean, hiribildu mailako kokaleku egonkor bat ezarri zen 1299an. Hiru kale nagusiak –Goienkale, Artekale eta Barrenkale– mailakatuak eta erraz ulertzekoak dira; itsasadarrera ematen duten bi kantoik ebakirik daude. Kale hauetan aurki daitezke hondar eta eraikin zaharrak, gainerako guztia, periferia, modernoa baita, bertako hondartzek bultzaturik, inguru honek izan duen garapen turistikoaren emaitza, alegia.

**Andra Maria Magdalena eliza**

xv. mendearen amaierako harlanduzko eraikin gotiko ona, zenbait berezitasun eskaintzen dituena. Haietariko bat, tenpluaren estalkia, sei pilare poligonalean gainean bermaturiko egurrezko sabai handia baitu, galiziar eliza «mariñeira» gotikoen moldean; hain zuzen ere, hiru habeartetan banaturiko leku nasai eta zabala modulatzeko dute euskarri horiek. Egungo sabai kasetoiduna (Seberino Atxukarro, 1886) ez da jatorrizkoa. Dorre sendoa da berezitasunetako beste bat: kanpaien euskarria, gotorlekua eta itsasadarraren ahoaren gaineko talaia da aldi berean. Martin Gareka maisuak jardun zuen dorrearen eraikuntzan, 1522an.

Ezkerreko horman jarrita dagoen eta nekaldiaren irudiak erakusten dituen poliptiko bat da altxor artistiko nagusia. Bost piezak –anatomia hezurtsuko irudi txikiez hornituak– xv. mendearen erdialdeko alabastro ingelesak dira (1460 ingurukoak); izan ere, ohiko salgaiak ziren garai hartan, Bizkaiko Golkoaren eta britainiar uharteren arteko merkataritzan. **Organoa** 1879koa da, Eleizgarairena.



**Legenda**

- Zein toki bisitatu ibilbide honetan
- Autopista
- Ibilaldiko errepidea
- Oinarrizko sareko errepidea
- Eskualdeko errepidea
- Tokiko errepidea

